

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

# Getxophoto 2021

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

# Iraila 02 → 26

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu



Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Nazioarteko Irudi Jaialdia  
Getxo, Euskadi  
[www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

# PRENTSA



Elkarbanatu

Elkarbanatu

Elkarbanatu

ARGAZKIA:  
ELEONORA AGOSTINI,  
A BLURRY AFTERTASTE

# Getxophoto 2021

## Nazioarteko Irudi Jaialdia

**Antolatzailea**

Begihandi

**Komisarioa**

Jon Uriarte

**Gaia**

Elkarbanatu

**Datak**

Irailak 2 → 26, 2021

**Lekua**

Getxo, Euskadi


**Kontaktua**

[comunicacion@getxophoto.com](mailto:comunicacion@getxophoto.com)

+34 946 576 475

+34 635 745 095

[www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)



# Aurkibidea

04

8 Ideia

05

Jaialdiaren Inguruan

07

Egitarau artistikoa eta erakusketak

10

Edizio experimentalena eta digitalena

13

Snacks

14

Hitzorduak

16

Artistak

# 8 Ideia

## 1 #15 EDIZIOA

GETXOPHOTO duela 15 urtetik Getxon egiten den irudian zentratutako jaialdi bat da. Etengabe parte-hartzaileagoa, hibridoagoa, konprometituagoa eta jasangarriagoa izatearen bilaketan dagoen ekosistema baten parte da jaialdia.

## 2 GAIA: PARTEKATU

Jaialdiak informazioaren irisgarritasunak, migrazio-fluxuek eta desberdintasun ekonomikoek menderatutako mundu batean *partekatzearen* ideiak izan ditzaken esanahi berriak aztertuko ditu.

## 3 ESPAZIO PUBLIKOA

Gero eta handiagoak diren mundu-mailako homogeneousazioaren eta pribatizazioaren aurrean, espazio publikoa elkar-gunerako, elkarren onarpenerako eta esperimentaziorako gune izatea baldintzarik gabe defendatzeak bereizten du GETXOPHOTO.

## 4 JAIALDI HIBRIDO BAT

GETXOPHOTO aurrez-aurrekoa eta birtuala uztartzen dituen jaialdi hibrido bat bezala eratu da. Argazkigintzaz gain, jaialdiak egungo artista bisualek adierazpenerako erabiltzen dituzten errealitate birtuala, errealitate areagotua, zinea, proiektzioak, web-orriak edo instalazio interaktiboak bezalako bide ezberdinak barneratzen ditu bere egitarauan.

## 5 IKUSLEAK

Jaialdiak herritarrak erdigune dituen hurbileko kulturaren aldeko apustua egiten du. Gizarte-sarea indartzeko, ekimenak garatzen diren komunitateen inplikazioa sustatzen da (merkatariak, ostalariak edo zaleak).

## 6 PROGRAMA DIGITALA

GETXOPHOTO bere jardueraren irismena Interneterantz bideratzen joan da Internet ikusizko kultura garatzen joan den gunea bilakatu den heinean. Arlo ezberdinak barne hartzen dituen programazio digital bat garatzen du: podcastak, appak, memeak, 3D maketak eta zuzeneko emankizunak, beste proposamen digital batzuen artean.

## 7 TRANTSIZIO EKOLOGIKOA

Ingurugiroan duen eragina are gehiago murriztea eta are jasangarriagoa den ekimena bilakatzea da jaialdiaren produkzioarako eta diseinurako irizpidea.

## 8 EGITARAU PARTE-HARTZAILEA

Jaialdiak elkarrizketaz, bisitaldi gidatuez, aurkezpenez, hitzaldiez, proiektioez, tailerrez, gaueko ibilaldiez edo pelikulez osatutako egitarau hezitzaile eta parte-hartzaile sendoa du.

# Jaialdiaren Inguruan



Argazkia: JUAN GOMEZ

Hurrengo edizioa irailaren 2tik 26ra arte izango da, eta izango dugu zer ospatu; izan ere, jaialdiak 15 urte beteko ditu 2021ean. GETXOPHOTO 2007an jaio zen Begihandi elkarrearen eskutik, eta bere helburuak berdinak izaten jarraitzen dute: herritar moduan eragiten gaituzten interes orokorreko gaien inguruko **elkarrizketa bat proposatzea gizarteari**; elkargunerako eta elkarren onarpenerako **espazio publikoa berreskuratzea**, eta **ezohiko formatuen, euskarrien eta erakusketa guneen (fisikoak zein digitalak) esplorazioaren aldeko apustua egitea**. Hori guztia, kontu handiz egindako nazioarteko egitarau batekin.

Urte hauetan guztietan, Jaialdiak 250 artista baino gehiagoren lana erakutsi du, horietariko asko nazioartean ospea dutenak (Zanele Muholi, Martin Parr, Alessandra Sanguinetti, Cristina de Middel, Pieter Hugo, Paul Fusco, Simon Norfolk, Erik Kessels eta Michael Wolf, besteak beste), eta beste batzuk ez horren ezagunak baina zuten potentzialagatik beren garaian hauspotu zirenak. Era berean, milaka izan dira ibilbide honetan zehar Jaialdia bisitatu izan duten ikusleak.

Aurtengo edizioko egitaraua hiru arlo nagusitan egongo da egitura-tuta: **erakusketak, online egitaraua eta egitarau parte-hartzailea.**

GETXOPHOTOK espazio publikoaren aldeko apustua egiten jarraitzen du eta, beste edizioetan bezala, **erakusketa** gehienak aire zabalean antolatuko ditu. Hogeitabat erakusketa izango dira, aurtengo gaiaren inguruan arituko direnak.

GETXOPHOTOK jaialdi hibridoago bat izatearen helburua dauka, argazkigintzaz gain bideoa, instalakuntza, zinema, errealitate birtuala eta arte digitala bezalako proposamenek tokia izan dezaten. Ildo honetan, joan den urtean interneten daukagun presentzia indartu genuen, online gune hori komunikazio eta promoziorako erabiltzeaz gain, jaialdiaren egitarauaren zati bat garatzen den toki bat ere bilakatzeko. **Egitarau digitalak** besteak beste artxibo historiko digitala, podcastak, app-ak edo diseinurako tresnak dituen egitarau zehatz bat garatzen du.

Jaialdia bertako artisten eta mundu osoko artisten arteko elkargunerako plataforma bat da, beraien esperientzia eta ezagutza parteka ditzaten. Egitarauaren parte dira **nazioarteko open call-a** (toki ezberdinetako egileei ateak zabaltzen dizkiena), **hezkuntza egitarauko** laborategiak, kulturaren ekosistema sendotzen laguntzen duten eragile kulturalen eta erakundeen arteko **kolaborazioak**, **topaketak** irudien eta lanbidearen inguruko hausnarketarako, edo **parte-hartze egitarauaren** barneko askotariko ekintzak.

Azkenik, ingurugiroan dugun eragina murrizteko asmoarekin, **jasangarritasun plana** garatu dugu bigarren urtez jarraian. Plan honekin Eusko Jaurlaritzaren Erronka Garbia erakundearen **Ekitaldi Jasangarria** aintzatespena lortu dugu.

# Egitarau artistikoa eta erakusketak

RIVER CLAIRE, *Marwar wawa*

Londresko The Photographer's Galleryko komisario digitala den Jon Uriarte hondarribiarra izango da GETXOPHOTOko komisarioa beretzat postu horretan bigarrena izango den edizioan. Egitarau artistikoa osatzen duten hogeitau proiektu hautatu ditu. Gaur egungo arazoei hertsiki lotutako egitarau bat, *elkarbanatzea* duena gai nagusi bezala. Hortaz, jaialdiak informazioaren irisgarritasunak, migrazio-fluxuek eta desberdintasun ekonomikoek menderatutako mundu batean partekatzearen ideiak izan ditzaken esanahi berriak aztertuko ditu. Era horretan, jatorri ezberdineko eta arlo ezberdinetako artistak izango dira beraien ikuspuntu anitzetatik auzi hauei erantzun emateko arduradunak.

Horren eredu da Australian bizi den **Hoda Afshar** artista iraniarraren **Agonistes** lana. Lan honek irregulartasunak eta jokabide okerrak salatu nahi izan zituzten Australiako inmigrazioko, gazteen atxiloketarako, desgaituen laguntzarako eta beste arlo batzuetako gobernuko langile izandakoen esperimentziak batzen ditu. Orain, horren ondorioak pairatzen dituzte, eta hondamendi-pertsonal eta -profesionala erakusten dute; adiskidetasunen eta familia harremanen suntsipena; abusu hauek salatzerantz eraman zituzten ezinegon mental eta fisikoaren nondik-norakoak eta erabaki hori hartzeko izan zituzten arrazoiak.

Baliteke **Recetario para la memoria** aurtengo lan hunkigarrienetako bat izatea. **Las Rastreadoras del Fuerte** narkotrafikoarekin eta krimen antolatua-rekin harremana duten bortxazko desagerpenetako gorpuak aurkitzen eta identifikatzen saiatzen den bilaketa talde bat da. Haiekin batera, **Zahara Gomez** argazkilariak **Recetario para la memoria** sortu du: emakumeek bilaketak egiten dituzten paisaien argazkiak eta hainbat desagerturen plater gogokoenen errezeta eta argazkiak biltzen dituen liburua.

Latinoamerikatik **River Claire**ren **Warawar wawa** ere helduko zaigu. Urte luzez Boliviaren zein hegoalde osoaren argazki bidezko irudikapena mendebaldarren kontakizun erredukzionisten eta folkloristen bidez mugatu izan da. Bada, horrek eragina dauka herritarrek beren buruari buruz duten iruditerian. Lan honen bidez, **River Claire**rek kolokan jartzen ditu kanpotarren begiradak ezarritako irudi kanonak. Antoine de Saint-Exupéryren **Printze Txikia** kontakizunaren testuingurua aldatzetik abiatuta egiten du hori.

**Bridges are Beautiful** **Marina Canever**ren **Natura 2000** sarearen inguruko proiektu bat da. **Natura 2000** Europar Batasunak fauna, flora eta biodibertsitatea zaintzeko helburuarekin bultzatutako korridore ekologikoen sarea da. Estatu bakoitzaren muga-politikei men egin gabe, logika ekologista lehenesten duen komunikazio sistema transnazionala da. Lan honen bidez, azpiegituren eraikuntzen, politiken eta mugikortasun askatasunaren eta ingurugiroaren babesaren arteko kontraesanak aztertzen ditu Marinak.



MARINA CANEVE, *Bridges are Beautiful*




RIVER CLAURE, *Marawar wawa*



ETINOSA YVONNE, *It's all in my Head*



SEBASTIAN SCHMIEG, *Gallery.Delivery*



HODA AFSHAR, *Agonistes*



ZAHARA GÓMEZ & LAS RASTREADORAS  
DEL FUERTE, *Recetario para la memoria*



JUNO, *Las dos hebras*



AMIR, NOEMÍ, QUITAIBA, ALI, MUSTAFA  
& RAOUL, *Now You See Me Moria*



## PLAYLIST

“Musika izan da, eta oraindik ere bada, gure elkargunea, hitzik gabeko komunikazioarena eta elkarrekiko miresmenarena” dio Cristina Lizarragak –Belakoko abeslaria eta artista–, Josu taldekidearekin lotzen duen adiskidetasunari erreferentzia eginez. Asmo horrekin, bere erreferentzia gustukoenetako batzuk bildu ditu Crisek. “Zer da *elkarbanatzea*, zu hunkitzen zaituen horrekin maite dituzun horiek goza dezaten beharra ez bada?”.

## GETXOWEB

### Familia Agirregabiria de la Sen

Gogoratzen zara zer zen turista izatea Google Maps egon aurretik? Plataforma erraldoiari 10 urte aurreratuz, Agirregabiria de la Sen familiak 1996an *Getxoweb* sortu zuen, beraien alaba Leirek Ingalaterran zituen lagunei Getxo erakutsi ziezaien. 25 urte beranduago eta eroritako esteka batzuk gorabehera, mapa interaktibo aurrendari hau martxan da oraindik. Sar zaitetz bertan eta 90eko hamarkadako Getxo berbizi eta garai hartako Interneten estetika gozatu.

## INSTADEATH

### Roc Herms & Daniel Moreno Roldán

Instagrametik arrastorik utzi gabe desageru aurreko azken klika da *Instadeath*, eutanasia digital moduko bat. Instagrametik alde egiteko (edo ez) erabaki korapilatsua gauzatzeko zeremonia kolektiboa. Enteratu zer den hau, eta ea tailer honetan utzi dezakezun, ahal baduzu. Intentzioak aitortzeko unea izango da.

## GETXOKO ALBUMAK

### Begoña Salazar

Zu eta zure ingurukoak getxotarrak bazarete, Begoña Salazarrek eskuz egindako albumetan aurpegi ezagunen bat edo beste aurkituko dituzue. Portu Zaharrean 25 urte daramatzan altsasuar honek, udalerriko auzokideek partekatu dizkioten hainbat argazki bildu eta koadernatu ditu ehun bat albumetan. Parekorik ez duten argitalpen horiek guztiak digitalizatu eta Jaialdiaren web-orrian ikusgai jarri ditugu. *La zapatería de Pedro (Torre 7-9, Algorta) dendan fisikoki ere ikus ditzakezu.*



Getxoweb



Instadeath

BLANCA MUNT, *Alerta vecino!*

## ALERTA VECINO! Blanca Munt

Bilakatu ezazu zure etxea, eta besteena, leku segurua! *WhatsAppeko Alerta vecino!* taldean doan eta libreki sar zaitezke, eta zure etxea eta maite dituzun pertsonak salbu mantentzeko teknika errazak ikasiko dituzu. Egin bat eta hartu parte herritarren zaintza-sare batean, eta mantendu lapurrak urrun zure telefono mugikorrari esker. Blanca Muntek garatua, online proiektu parte-hartzaile experimental honek herritarren zaintzarako txatetan dauden dinamika sozialak aztertzen ditu.

## GALLERY.DELIVERY x Mawatres Sebastian Schmiege

Etxez etxeko erakusketa kolektibo honekin, Sebastian Schmiege artistak eta Mawatres komisarioak banatzaileen rola hankaz gora jarriko dute, *riderra* bitartekari bihurtuz, banaketa-motxila kubo zuria, merkantzia hausnarketa-tresna, eroslea subjektu aktibo eta entrega-helbidea kultur espazio bihurtuz. Azken batean, ordu-betez zure etxea arte-galeria bihurtu ahal izango duzu eta, nahi izanez gero, piezaren bat erosi. Eskaintza hau lehertu egingo da!

Eskaera: [Gallery.delivery](#)



### ARGITALPENA


Hiru kolore. Getxophoto 2021eko artista guztien lanak jasotzen dituen argitalpen zaindua eta delikatua, Carles Murillok diseinatutako tematika eta grafika bereziarekin, Jaialdian sakontzeko ezinbestekoa. Info Puntuan eta [getxophoto.com](http://getxophoto.com) webgunean salgai.

### RECYCLING

Poltsak, mahaiak babestekoak, lorontziak edo zorroak: objektu original eta bakarrak sortzen ditugu, Jaialdiaren aurreko edizioan erakutsitako irudiekin. Guztia berrerabiltzen ahalegintzen gara. Info Puntuan eta [getxophoto.com](http://getxophoto.com) webgunean salgai.

### POSTERS ONLINE CULTURE WARS

Disnovation.org kolektibo frantziarrak ehunka meme politizatu laburbildu eta antolatu ditu poster batean, sareko gudu-eremuan dauden narratibak menderatzeko borroka irudikatzeko. Sekulako laburpen garaikidea. Lortu ezazu Info Puntuan.



Chantal Ackerman, Harmony Korine, Ettore Scola, Spike Lee, Basilio Martín Patino, Lucrecia Martel edota gure Agnès Varda maitagarria. Aurten, Filmineko gure lagunen zinema plataforman ere gozatu dezakezu Jaialdia. Sartu, Getxophoto kanala bilatu eta egin bat modu desberdinetan elkarbanatzearen ideian pentsarazi diguten istorio eta filmekin.

# Hitzorduak

Irailaren 2tik 5era. Webgunean izena ematea nahitaezkoa.  
Leku mugatuak.



ARGAZKIA: Juan Gómez

## MAPS

(;Lagunik Onenak Betiko;)

Estatu mailan aitzindaria den artista bisual emergenteen arteko topaketa honetan, argazkilaritza eskola ezberdinetako berrogei ikasle baino gehiagok hartu-harremana izan, euren lanak partekatu, kezkak adierazi, lankidetzak sareak sortu eta ezagutzak elkarbanatuko dituzte, *speedating* arratsalde batean. Betiko lagun onak egiteko espazio bat. Horien artean, gainera, Jon Uriarte komisarioak datorren urteko edizioan erakutsiko den lan bat aukeratuko du.

## BISITA BEREZIA

Artistak aurrez aurre entzutea luxua da. Zatoz gurekin txango paregabe honetara, eta ezagutu itzazu gertutik edizio honetako partehartzaileak. Iazko antzera, jende-pilaketak saihesteko abiapuntu desberdinetatik aterako diren talde txikietan egingo ditugu erakusketak ikusteko bisitak.

## PUBLIC PROTEST VIDEO

Edizio honetako gaia oinarri hartuta, Raul Goñik, Santi Grauk eta Bartzelonako Elisava eskolako ikasle batzuek esperientzia interaktibo bat eskainiko dute eta Jaialdiko publikoa proposamenaren erdigunean jarriko, horretarako diseinatutako Instagram iragazki bati esker. Elkarbanatu ala ez elkarbanatu? Hori da kontua. Instagram gure egoa hobetzen duen tresna al da, ala ahulago bihurtzen gaituena? Proiekzio ibiltari honetan, *influencer* set batean elkarri eragingo diogu, eta filtroaren emaitzak denbora errealean proiektatuz joango dira Algortako hainbat hormatan.

## ITXIALDIA vol.8

Gure hitzordu gogokoenetariko bat bueltan da berriz ere: *must* bat, dudarik gabe. Irudigintza garaikidearekin lotutako gaiak berraztertu eta eztabaidatzeko espazio honetan, Penelope Umbrico –artista estatubatuarra–, Marta Ponsa –Pariseko Jeu de Paumeko komisarioa–, Duncan Forbes –Londresko V&A Museumeko argazkigintza zuzendaria–, Mirjam Kooiman –Amsterdamgo FOAMeko komisarioa– edota Roc Hermsen –artista katalana– gisako pertsona ezagunek parte hartuko dute. Hitzaldiak eta hizketaldiak goiz osoan, giro atseginean eta ihesbiderik gabeko tokian, ez hizlari ezta parte-hartzaileentzat ere.

## OPENING

Hamabost urte betetzen ditugu eta, jairik egon ez arren, *petit komitean* ospatu nahi dugu. Aurten ere Andres Isasi kontserbatorioan elkartuko gara, edizio berria inauguratzeko. Jon Uriartek, gure zuzendari artistikoak, egoerak uzten duen heinean Getxoratuko diren artistekin batera, ezohiko edizio honetarako prestatu duen proposamen artistikoari ikusizko gainbegirada bat emango dio. Eta nola ez, sorpresaren bat edo beste ere egongo da.

## NOW YOU SEE ME MORIA

Ikusgarritasuna funtsezkoa da aldaketa gauzatu dadin. Zatoz *Now You See Me Moria* hurbilagotik ezagutzera, Moriako (Lesbos irla, Grezia), errefuxiatuen esparru europarreko, eguneroko bizitza erakusten duen eta han bizi duten egoeraz kontzientzia piztu nahi duen proiektu kolaboratzaile. Noemí, ekimenaren bultzatzaileetako bat, eta Jon Uriarteren eskutik ezagutu hobeto gutako bakoitzak geure etxetik eto telefonotik zer egin dezakeen egoera horri erantzuteko.

# Artistak

Penelope Umbrico	<i>TVs from Craigslist</i>
Dina Kelberman	<i>Your Hail Photos</i>
Hoda Afshar	<i>Agonistes</i>
Juno	<i>Las dos hebras</i>
Marina Caneve	<i>Bridges are Beautiful</i>
Amir, Noemí, Qutaiba, Ali, Mustafa & Raoul	<i>Now You See Me Moria</i>
Eleonora Agostini	<i>A Blurry Aftertaste</i>
River Claire	<i>Warawar wawa</i>
Etinosa Yvonne	<i>It's all in my Head</i>
Zahara Gómez & Las Rastreadoras del Fuerte	<i>Recetario para la memoria</i>
Familia Agirregabiria de la Sen	<i>Getxoweb</i>
Begoña Salazar	<i>Getxoko albumak</i>
Shelli Weiler	<i>Enjoy House</i>
Andrea Muniáin	<i>Fotollamada</i>
Sebastian Schmieg	<i>Gallery.Delivery</i>
Apian	<i>Hives 2400 B.C.E. – 1852 C.E.</i>
Disnovation.org	<i>Online Culture Wars</i>
Mark Dorf	<i>Contours</i>
Lebohang Kganye	<i>Ke Lefa Laka</i>
Blanca Munt	<i>Alerta Mira-sol &amp; Alerta vecino!</i>
Leonard Suryajaya	<i>False Idol</i>
Mishka Henner	<i>Feedlots</i>



FAMILIA AGIRREGABIRIA DE LA SEN,  
Gefxoweb



BLANCA MUNT, *Alerta Mira-So!*



ELEONORA AGOSTINI, *A Blurry Aftertaste*



PENELOPE UMBRICO, *TVs from Craigslist*



LEBOHANG KGANYE, *Ke Lefa Laka*



DINA KELBERMAN, *Your Hai!* Photos



ANDREA MUNIÁIN, *FotoIlanada*



SHELLI WEILER, *Enjoy House*



ANTOLATZAILEA

# BEGIHANDI

BABESLE NAGUSIA



ERAKUNDE BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



KOMUNIKABIDEAK



ONDORENGO ERAKUNDEAREKIN DUGU LOTURA:

EKITALDI JASANGARRIAREN ZIURTAGIRIA DAUKAGU, ERAKUNDE HONEK EMANA:

